



MUSIKA KONTSERBATORIOETAN ORDEZKAPENAK EGITEKO IZANGAIEN ZERRENDA

2004ko martxoaren 21ean argitaratu zen iragarki bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Erdi Mailako Musika Kontserbatorioetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrendaren birbaremazio-prozesuari buruzkoa.

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, eskariak aztertu ostean eta ikasketa-espeditentea eta musika-jarduera barematu eta gero, 2004ko maiatzaren 3an argitaratu ziren onartutako izangaien zerrenda eta ikasketa-espeditenteari eta musika-jarduerari zegokien puntuazioa. Erreklamazioak aurkezteko epea 2004ko maiatzaren 3tik 7ra luzatu zen.

Irakaskuntzako zerbitzuen baremazioa, berriz, ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrendaren urteko birbaremazioaren barruan egin da.

Horiek horrela, Erdi Mailako Musika Kontserbatorioetan ordezkapenak egiteko izangaien behin-behineko zerrendan dauden guztiak Hezkuntzako hiru lurralde-ordezkaritzetatik edozeinetara jo dezakete, norberaren datuak dituen fitxa jasotzeko. Datu horiek irakaskuntza-esperientziari dagozkio, eta 2004ko maiatzaren 3an argitaratu zen baremazioari (ikasketa-espeditentea eta musika-jarduera).

Fitxa **ekainaren 4tik (ostirala) aurrera jaso ahal izango da, ekainaren 8ra arte (asteartea). Epe horretan, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira, akatsen bat izanez gero**, baita beste irakasgai batzuk (horiek emateko gaitasuna badu, betiere) eta ordezkapenak egiteko beste lurralde batzuk eskatu ere.

Erreklamazio guztiak, bai maiatzean aurkeztutakoak —ikasketa-espeditentearen eta musika-jarduearen baremazioaren aurkakoak—, bai orain irekitzen den epean aurkeztu direnak, Musika Kontserbatorioetan ordezkapenak egiteko izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzearekin batera ebatziko dira.

Epe horretan, halaber, eskaera berria aurkeztu ahal izango dute martxoaren 21eko deialdian eskabiderik aurkeztu ez zuten eta hiru musika-kontserbatorietako zerrendaren batean dauden izangaiek.

► [ERREKLAMAZIO-ORRIA](#)

► [ESPEZIALITATEAK - ESKATUTAKO TITULAZIOAK](#)